

## GEOGRAFIA

## GEOGRAFÍA

### AZTERKETARAKO ARGIBIDEAK

- Proba idatzi honetan **3 ariketa egin** behar dituzu.
- Ariketak hiru multzotan banatuta daude:  
**A multzoa (4 puntu):** A1 eta A2 aukeren artean, aukeratu bat. Testu, mapa, grafiko, eta irudien iruzkinak edo kokapenak ondo eginak egotea hartuko da kontuan.  
**B multzoa (4 puntu):** B1 eta B2 aukeren artean, aukeratu bat. Ezagutza-maila eta erlazioak egiteko gaitasuna hartuko dira kontuan.  
**C multzoa (2 puntu):** Egitea testu koherente bat (6 eta 8 lerro artean) aurkezten diren 6 kontzeptuetatik 4 gutxienez erlazionatzen dituena.

### INSTRUCCIONES PARA EL EXAMEN

- En esta prueba escrita **debes realizar 3 ejercicios.**
- Los ejercicios están distribuidos en tres bloques:  
**Bloque A (4 puntos):** Elige una opción entre A1 y A2. Se tendrá en cuenta que los comentarios de textos, mapas, gráficos e imágenes tanto como la localización en los mapas estén bien realizados.  
**Bloque B (4 puntos):** Elige una opción entre B1 y B2. Se valorará el nivel de conocimientos y la capacidad para establecer relaciones.  
**Bloque C (2 puntos):** Elaborar un texto coherente (entre 6 y 8 líneas) en el que relacionas como mínimo 4 de los 6 conceptos que se presentan.

# GEOGRAFIA


# GEOGRAFÍA

## A MULTZOA. (4 puntu)

**A1 eta A2 aukeren artean, aukeratu bat**

**A1.- Euskal Autonomia Erkidegoko adin piramidearen (2022 urtea) iruzkina egin. (4 puntu)**

Testuingurua: "Euskal AEko ugalkortasuna muga oso baxuetan dago konparazioari dagokionez; izan ere, 2022an batez bestekoa 1,21 jaiotza izan zen emakume bakoitzeko, aurreko urtean baino lau hamarren gutxiago, eta Europar Batasuneko 1,53 jaiotzetatik behera, 1976ko batez besteko 2,7 jaiotzetatik eta belaunaldi-ordezkapenerako behar diren 2,1etik oso urrun. Beste aldetik, bizi-itxaropena Europar Batasunean baino handiagoa da, 2,5 urte gehiago gizonen kasuan eta 2,7 emakumeen kasuan" **EUSTAT, 2022**



**GEOGRAFIA**

**GEOGRAFÍA**

**A2.- Paisaia irudi honen iruzkina egin. (4 puntu)**

Testuingurua: “*Gaur egun, Euskadik kanpoko energia-mendekotasun handia du, energia-konsumo osoaren % 90 inguru. Petrolioaren eratorriak dira energia-iturri erabiliena, ondoren gas naturala dago, eta energiaren azken kontsumoa erregai fosilen portzentajea % 83,9 izan zen 2022an. Euskadin energia-estategiari lotutako helburuen artean, azpimarratzekoak dira 2030ean energiaren eskaria % 17 murriztea joera-agertokiarri dagokionez, energiaren amaierako kontsumoa energia berritzagarrrien erabilera % 13tik % 21era igarotzea, petroliotik eratorritakoak % 18 murriztea, eta energia-jatorria duten CO2 emisioak 3 Mt apaltzen laguntzea*”. 1/2024 LEGEA, otsailaren 8ko, Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketarena.



'CC BY-3.0-ES 2012/EJ-GV/Irekia-Gobierno Vasco/Mikel Arrazola'

## GEOGRAFIA

## GEOGRAFÍA

### B MULTZOA (4 puntu)

#### **B1 eta B2 aukeren artean, aukeratu bat**

**B1.-** Zer ezaugarri dituzte Espainiako mediterraneo aldeko nekazaritza-abeltzaintza eta baso-eremuek? Bukaeran, egin esazu lotura bat testuarekin. (4 puntu)

Testua: “Ahuakatearen landaketa etengabe hazten ari da duela 15 urtetik hona Malagan eta Granadan, produktuagatik ordaintzen diren prezio altuek eraginda. Hala ere, lehorreko laboreak (mahastiak, olibondoak eta almendrondoak) ur asko behar duen landare tropikal honekin ordezkatzeak ondorioak ditu: estres hidrikoak, legez kanpoko putzuen ugaritzea, lehorteen eta lurzoru degradatuen kudeaketa okerragoa. Hala salatu du Ekologistak Martxan taldeak asteazken honetan aurkeztutako txosten batek. Txosten horren arabera, Malagako Axarkian ureztatutako hektareen % 40 inguru legez kanpokoak dira, eta salatu du laborantza penintsulako beste eremu batzuetara hedatzen ari dela, modu jasanezinean.” [EL PAÍS](#).

**B2.-** Zein izan da turismo-sektorearen bilakaera Spainian? Zer pisu du gaur egun turismo-jarduerak Spainian? Bukaeran, egin esazu lotura bat testuarekin. (4 puntu)

Testua: “Nazioarteko turistek gogokoen dituzten helmugako autonomia-erkidegoei dagokienez, Kataluniak 18 milioi bisitari baino gehiago ditu, 2022an baino % 21,2 gehiago. Kataluniaren atzetik, Balear Uharteak daude – 14 milioi turista baino gehiago eta % 9,1eko hazkunde –, eta, atzetik, Kanariak (13,9 milioi eta % 13,1eko igoera), Valentzia (10,4 milioi, % 21,8 gehiago) eta Madril, urte artean gehien hazi den erkidegoa 2023an, % 29,6, 7,5 milioitik gora. Gainerako erkidegoek, oro har, % 23,8 egin dute gora iazko datuekin alderatuta.” [INDUSTRIA ETA TURISMO MINISTERITZA](#).

### C MULTZOA (2 puntu)

**C.-** Egin testu koherente bat (6 eta 8 lerro artean) aurkezten diren 6 kontzeptuetatik 4 gutxienez erlazionatzen dituena:

- Industria
- Enpresa
- Holding
- Deskokatze industriala
- Goi-teknologiako industria
- Tertziarizazioa

## GEOGRAFIA


## GEOGRAFÍA

### BLOQUE A (4 puntos)

#### Elige una opción entre A1 y A2

**A1.-** Realiza un comentario de la pirámide de población (año 2022) de la Comunidad Autónoma del País Vasco. (4 puntos)

Contexto: “La fecundidad de la C.A. de Euskadi se halla en límites excepcionalmente bajos en términos comparativos, ya que en 2022 el promedio se sitúa en 1,21 nacimientos por mujer, cuatro décimas menos que en el año anterior, y por debajo de los 1,53 que se dan en la Unión Europea y muy lejos de los 2,7 nacimientos de media habidos en 1976 y de los 2,1 necesarios para el remplazo generacional. Por su parte, la esperanza de vida es más elevada que la que se da en el conjunto de la Unión Europea, ya que la supera en 2,5 años en el caso de los hombres y en 2,7 años en las mujeres”. [EUSTAT, 2022](#)



**GEOGRAFIA**

**GEOGRAFÍA**

**A2.- Comentario de la imagen de paisaje. (4 puntos)**

Contexto: “En la actualidad, Euskadi presenta una alta dependencia energética exterior, en torno al 90% del consumo total energético. Los derivados de petróleo son la fuente energética más utilizada, seguida del gas natural, y el porcentaje de combustibles fósiles en el consumo final energético constituyó, en 2022, un 83,9 %. Entre los objetivos asociados a la estrategia energética, destacan reducir la demanda energética en un 17 % en 2030, pasar de un 13 % al 21 % en el uso de energía renovable en el consumo final contribuir a la mitigación de 3 Mt de emisiones de CO<sub>2</sub> de origen energético”. LEY 1/2024, de 8 de febrero, de Transición Energética y Cambio Climático.



'CC BY-3.0-ES 2012/EJ-GV/Irekia-Gobierno Vasco/Mikel Arrazola'

## GEOGRAFIA

## GEOGRAFÍA

### BLOQUE B (4 puntos)

#### Elige una opción entre B1 y B2

**B1.-** ¿Qué características tienen los espacios agrícola- ganaderos y forestales de la España mediterránea? Para finalizar, establece una relación con el texto. (4 puntos)

Texto: “*La plantación del aguacate está creciendo sin parar desde hace 15 años en Málaga y Granada, espoleado por los altos precios que se pagan por el producto. Sin embargo, la sustitución de cultivos de secano —viñas, olivos y almendros— por esta planta tropical que requiere mucha agua tiene consecuencias: estrés hídrico, proliferación de pozos ilegales, peor gestión de las sequías y suelos degradados. Así lo denuncia un informe de Ecologistas en Acción presentado este miércoles, que estima que alrededor del 40% de las hectáreas de regadío en la Axarquía malagueña son ilegales y denuncia que el cultivo se está extendiendo a otras zonas de la península de forma insostenible.*” [EL PAÍS](#).

**B2.-** ¿Cuál ha sido la evolución del sector turístico en España? ¿Qué peso tiene en la actualidad la actividad turística en España? Para finalizar, establece una relación con el texto. (4 puntos)

Texto: *Respecto a las comunidades autónomas de destino preferidas por los turistas internacionales, Cataluña está a la cabeza con más de 18 millones de visitantes, un 21,2% más que en 2022. Tras Cataluña se sitúa Baleares –con más de 14 millones de turistas y un crecimiento del 9,1%– y por detrás Canarias (13,9 millones y aumento del 13,1%), Valencia (10,4 millones, un 21,8% más) y Madrid, que es la comunidad que más crece interanualmente en 2023, un 29,6%, hasta superar los 7,5 millones. El resto de comunidades crecen en conjunto un 23,8% respecto al año pasado.* [MINISTERIO DE INDUSTRIA Y TURISMO](#).

### BLOQUE C (2 puntos)

**C.-** Elabora un texto coherente (entre 6 y 8 líneas) en el que relacionas como mínimo 4 de los 6 conceptos que se presentan:

- Industria
- Empresa
- Holding
- Deslocalización industrial
- Industria de alta tecnología
- Terciariización

## GEOGRAFIA / GEOGRAFÍA

### GEOGRAFIA

#### Irizpide orokorrak

CRUE mailan adostutakoari jarraituz, atal bakoitzeko guztizko puntuazioaren % 10ek honako hau hartuko du kontuan:

- Eskatutakora egokitzea (azterketako proben balorazioak galderen/zereginen enuntziatura egokitu behar da)
- Aurkezpenaz gain, koherentzia, kohesioa, zuzentasun gramatikala, lexikoa eta ortografikoa

Horretaz gain bereziki kontuan hartuko da:

- kontzeptuen argitasuna
- idazkeraren zuzentasuna eta heldutasuna
- erlazionatzeko gaitasuna
- elementu eta faktoreak sailkatzeko gaitasuna
- erantzun ordenatua egituratzea
- testu/mapa/taula edo grafikoen iruzkina erlazionatzea eta kartografiako kokapen zuzenak egitea.
- ezagupen-maila

#### Irizpide espezifikoak

##### A MULTZOA (4 puntu)

**A1.- Euskal Autonomia Erkidegoko adin piramidearen (2022 urtea) iruzkina egin. (4 puntu)**

Puntuazio osoaren %10ek honako hau hartuko du kontuan:

- Eskatutakora egokitzea (azterketako proben balorazioak galderen/zereginen enuntziatura egokitu behar da)
- Aurkezpenaz gain, koherentzia, kohesioa, zuzentasun gramatikala, lexikoa eta ortografikoa

Gainerakoa honako alderdi hauen arabera balioztatuko da:

- ✓ Piramideak aurkezten duen itxura. Adin-talde gazteenen kopurua nabarmen eta etengabe jaisten ari da, eta, aldi berean, adin helduenen kopurua handitu egiten da.
- ✓ Populazio zaharraren artean: bere bizi-itxaropen handienari dagokionez populazio femeninoaren pisu handiagoa. Gerra-aldiaren azpi-jaiotza-tasa. COVID-19aren ondorioz 2020an gertatutako gain-hilkortasuna, 65 urte edo gehiagoko adintarteari eragin ziona batez ere
- ✓ Helduen artean: *baby boom* (1958-1977) belaunaldiaren eta hurrengo urteen zabaltasuna

- ✓ Belaunaldien murritzapena urte horietatik aurrera emankortasun eta jaiotzatasaren jaitsieragatik
- ✓ Zabaltze txikian nabarmentzen den orain dela gutxiko jaiotzaren berreskuratzea, oso xumea, 10-14 urte tarteetan.
- ✓ Azken beherakada, krisia eta adin emankorreko belaunaldien kopuru txikiagoa.

## A2.- Paisaia irudi honen iruzkina. (4 puntu)

Puntuazio osoaren %10ek honako hau hartuko du kontuan:

- Eskatutakora egokitza (azterketako proben balorazioak galderen/zereginen enuntziatura egokitu behar da)
- Aurkezpenaz gain, koherentzia, kohesioa, zuzentasun gramatikala, lexikoa eta ortografikoa

Gainerakoa honako alderdi hauen arabera balioztatuko da:

Kontsultatu epigrafe honetarako dokumentu hau: <http://hdl.handle.net/10810/37549>

### Diapositibak: 57-58-59

- ✓ 1.- **(0,20)** Zer elementuk osatzen dute paisaia? Baten bat nagusitzen da? Ikusten den paisaia zer da naturala edo antropikoa?

*Paisaia osatzen duten osagaiak bereizten ditu: antropiko abiotikoa portu-azalera eraikian eta induskatutako hegalean, biotikoa hegal-aulkieta landaredian eta hidrikoia itsas laminan.*

- ✓ 2.- **(0,40)** Zer erliebe mota da? EAEko zein unitatetan kokatuko zenuke? Modelatze formak ikusten dituzu?

*Bereizitako erliebearen azterketa egokia egiten du: topografia, litologia, egitura, modelatze forma, kokapena: itsasertzeko paisaia bati dagokio. Argazkiaren oinean dagoen mendiaren hegalak eta atzealdean ikusten den itsaslabarrak osatzen duten kostaldeko erliebea da. Bien artean, irekidura bat marrazten da, oso zabala ez den badia bat, abra deitzen dena. Mendi-hegalaren jatorrizko modelatze-moduak desagertu egin dira; izan ere, harrobi gisa erabili da, portua handitzeko eta betetzeko erabili den harkaitza erautzeko.*

- ✓ 3.- **(0,40)** Zer landaredi mota bereizten da? Naturala edo antropikoa da? Zein dira haren ezaugarriak eta eragileak?

*Egoki bereizten du landaredi mota edo lurzoruaren erabilera mota. Eragile nagusiak aipatzen ditu: kokapenaren araberako baldintza klimatikoak: behatutako landaredia ez dator bat itsasertz atlantikoko labar eta hegaletako landaredi potentzialarekin (haritzezko basoak). Landaredi erruderala da (latinez *ruderis* "obra-hondakinak"), ekintza antropikoak eraldatutako eremuetan hazten eta garatzen diren landareak.*

- ✓ 4.- **(0,20)** Ur-gorputzak ikusten dira? Zein?

*Hainbat ur-gorputz bereizten ditu: Kantauri itsasoko lamina ikusten da barrualdera sartzen den ziri batekin. Itsasoak ibai-harana inbaditzen du, eta, horregatik, mareen eragina iristen den heinean, itsasadarra esaten zaio.*

- ✓ 5.- **(0,40)** Ikusten diren osagaiak eta ezaugarriak kontuan izanda, zer funtzio agertzen da edo dira paisaia horretan?

*Paisaia horretan agertzen diren funtziak egoki bereizten ditu: Paisaia hori portuko azpiegitura bati dagokio. Bertan, eraikitako eta eraikitzen ari diren dikeak eta kaiak ikus daitezke, eta gas naturala deskargatu, biltegiratu, tratatu eta banatzen duen azalera. Paisaia horren funtziak merkataritza- eta industria-zerbitzuak dira.*

- ✓ 6.- (2) Zure ustez paisaia horretan natura-gizartea harremanaren arteko lurraldagaitasun edo arazoren bat hautematen da?

\*Atal honetan, ikasleek irudiarekin lotutako beste gai batzuk garatu ahal izan dituzte, eta horiek ere egokiak izan daitezke. Adibidea:

*Paisaia horretan adierazten den lurraldearekiko gaitasuna edo arazoa egoki ikusten eta azaltzen du: Bilboko kanpoko portuaren zatia jasotzen du irudiak bere irekiduran, baina itsasoari berriki irabazitako espazio baten irudian ikus daitekeen bezala da. Izen bereko itsasadarrean izan zuen jatorria Bilboko portuak, baina, industria jarduera, ontzigintza eta merkataritza handitu ahala, ubidea bideratu eta kaiak, dikeak eta kontradickeak eraiki ziren, portuaren ahalmena handituz. Kanpo inguruko beste udalerri batzuetarantz ireki zen portua, eta horretarako bete eta eraiki zen itsasoaren gainean. Handitzeari esker, merkataritza- eta industria-jarduera dibertsifikatu egin da, eta itsasadarraren ertzetan balio estrategiko handiko lurrik berreskuratu dira hirigintzaren ikuspegitik. Obra horrek aldatu egin ditu itsasertzeko ingurumen-baldintzak eta izaera (artifizializazioa) jarduera ekonomiko eta komertzial handiagoa lortuz. Irudian gas-planta bat ikusten da. Euskadik energia-konsumoaren tasa handia du, batez ere industria-sektoreari lotuta, eta energia-baliabide gutxi dituenez, sektore horri lotutako industriak izaera estrategikoa du. Ikatza (Pasaia) eta fueloila (Santurtzi,) oso kutsakorrak erabiltzen zitzuten zentral termikoak, dagoeneko desegin dituzte, eta egungoak, ziklo konbinatukoak deituak, gasa erabiltzen dute.*

## B MULTZOA (4 puntu)

**B1.-** Zer ezaugarri dituzte Espainiako mediterraneo aldeko nekazaritza-abeltzaintza eta baso-eremuek? Bukaieran, egin esazu lotura bat testuarekin. (4 puntu)

Puntuazio osoaren %10ek honako hau hartuko du kontuan:

- Eskatutakora egokitzea (azterketako proben balorazioak galderen/zereginen enuntziatura egokitut behar da)
- Aurkezpenaz gain, koherentzia, kohesioa, zuzentasun gramatikala, lexikoa eta ortografikoa

Gainerakoa honako alderdi hauen arabera balioztatuko da:

- ✓ Mediterraneo itsasoaren kostaldea eta kostalde-aurrea, Guadalquivir harana eta Balear uharteetan kokatzen da
- ✓ Nekazaritza-egituraren ezaugarriak: biztanleriaren muriztapena nekazari-exodoaren eraginez; kostako baratzeetan izan ezik populatze sakabanatuak pilatzeko joera du; ustiategien tamainan erreparatuz, inguru ureztatuetan minifundioa, Valentzia eta Murtziako lehorreko lurretan ustiategi txikiak eta ertainak, ertainak Katalunian eta handiak Andaluziako mendebaldean
- ✓ Lehorreko laborantzak (zerealak, mahatsondoak, olibondoak arbendolondoak) Guadalquivir haranean, kosta-aurreko inguru menditsu eta gorabeheratsueta eta Mallorcaren barrualdean
- ✓ Laborantza ureztatuetan baratzezaintza goiztiarra aire zabalean, baratzezaintza goiztiarra plastikoaren azpian, frutikultura mediterranearra (zitrikoak, hezurdun eta pepitadun fruta-arbolak) eta fruitu tropikalak (txirimoia, ahuakatea, mangoa).
- ✓ Behi eta tixerrien abeltzaintza nagusi Katalunian, ardiak lehorreko lurretan eta abelburu basatiak Guadalquivir ertzetan
- ✓ Baso-ustiapenak garrantzi gutxi Huelvako eukalipto-azalera izan ezik.
- ✓ Azken urteetako arazoak aldaketa klimatikoarekin eta akuiferoen gehiegizko ustiapenarekin
- ✓ Testuarekiko lotura egokia.

**B2.-** Zein izan da turismo-sektorearen bilakaera Spainian? Zer pisu du gaur egun turismo-jarduerak Spainian? Erlazionatu zure erantzuna testuarekin. (4 puntu)

Puntuazio osoaren %10ek honako hau hartuko du kontuan:

- Eskatutakora egokitzea (azterketako proben balorazioak galderen/zereginen enuntziatura egokitutu behar da)
- Aurkezpenaz gain, koherentzia, kohesioa, zuzentasun gramatikala, lexikoa eta ortografikoa

Gainerakoa honako alderdi hauen arabera balioztatuko da:

- ✓ 1960ko hamarkadik garapen turistiko handia eta gaur egun, munduko nagusienetariko potentzia jasotako bisitariaren kopuruari eta diru-sarrerei erreparatuz.
- ✓ Lehen turismo-eredua: “eguzkia eta hondartza” izaerako masen turismoa. Turismo-eskaintza ugaria eta merkea, eskari homogeneo eta masiboari zuzenduta, erosteko ahalmen ertaina edo ertain-txikia zutenak, udan pilatuta eta Balearretako, Kanarietako eta Mediterraneoko kostaldeko eguzkiko eta hondartzako ingurueta konzentratua. Eedu honen eragileak: Europa mendebalde eta hegoaldeko garapen ekonomikoa, garraioen aurrerapena, hurbiltasun geografikoa, baliabide natural eta kultural bikainak, kostu txikia, azpiegiturak eta zerbitzuak egotea, nazioarteko harremanen normalizazioa eta jomuga turistikoaren eskaintza Estatu-politika bezala. Ezaugarriak baita turismo merkaturatzean nazioarteko operadoreen menpekotasuna eta jardueraren inpaktuaren aurreko axolagabetasuna.
- ✓ 1973 eta 1985 bitartean krisi-unea eskaitzaren arazoengatik: prezioak gareztitu inflazioaren eta soldatak igotzearen eraginez, baina zerbitzua, azpiegiturak eta

ingurumenaren kalitatea haundiagotu gabe, eskakizun berrietara egokitasun eza (turismo-modalitateen dibertsifizakazia) kontuan izanda gainera oporrak urtean zehar banantzen zirela eta Europako biztanleria zahartzen ari zela. Turismo-helmuga lehiakide berriak.

- ✓ Azken hamarkadetan turismo-eredu berrirantz: kalitezko eskaintza, erosteko ahalmen handiagoa duen eskari berezitu eta urriagora bideratua, hobeto banatuta denbora eta espazioa, turismo-modalitateen dibertsifikazioa. Bukatu ez den eredu honen eragileak: eskaintzaren kalitatea, dibertsifikazioa, sustatze eta ingurumen-iraunkortasuna, helmuga turistiko berriak aldaketa klimatikoarekin lotuak...
- ✓ COVID-19ak sortutako krisia eta berreskurapena
- ✓ Testuarekiko lotura egokia.

## C MULTZOA

C.- Egin testu koherente bat (6 eta 8 lerro artean) aurkezten diren 6 kontzeptuetatik 4 gutxienez erlazionatzen dituena.

Puntuazio osoaren %10ek honako hau hartuko du kontuan:

- Eskatutakora egokitzea (azterketako proben balorazioak galderen/zereginen enuntziatura egokitutako behar da)
- Aurkezpenaz gain, koherenzia, kohesioa, zuzentasun gramatikala, lexikoa eta ortografikoa

Gainerakoa honako alderdi hauen arabera balioztatuko da:

- ✓ Bakotzaren esanahia ulertzen du eta azaltzeko gai da (0,25)
- ✓ Kontzeptu guztiak erabili dira modu egokian geografiako ikuspuntutik sortutako produktuko propioan (0,75)
- ✓ Dagokion eskalan behar bezala erlazionatzen ditu erabilitako kontzeptu geografikoak (0,90)

## GEOGRAFÍA

### Criterios generales

De acuerdo con lo acordado a nivel de CRUE, el 10% de la puntuación total en cada apartado tendrá en cuenta lo siguiente:

- Adecuación a lo solicitado (tiene que ajustarse al enunciado de las preguntas/tareas)
- Además de la presentación, coherencia, cohesión, corrección gramatical, léxica y ortográfica

Además, se valorará especialmente:

- claridad de conceptos
- madurez y corrección de la expresión escrita
- capacidad de relación
- capacidad de jerarquizar elementos y factores
- estructuración ordenada de las respuestas
- la relación real de los comentarios con los textos, mapas, tablas, figuras y la concreción en las localizaciones cartográficas
- nivel de conocimientos

### Criterios específicos

#### **BLOQUE A: Ejercicio práctico (4 puntos)**

**A1.- Comentario de la pirámide de población (año 2022) de la Comunidad Autónoma del País Vasco. (4 puntos)**

El 10% de la puntuación total del apartado tendrá en cuenta lo siguiente:

- Adecuación a lo solicitado (tiene que ajustarse al enunciado de las preguntas/tareas)
- Además de la presentación, coherencia, cohesión, corrección gramatical, léxica y ortográfica

Además, se valorará el tratamiento de los siguientes aspectos:

- ✓ Forma que presenta la pirámide. Acusado y continuo descenso de efectivos en las edades más jóvenes, a la vez que un aumento en las edades más maduras.
- ✓ Entre la población anciana: mayor peso de la población femenina en relación con su mayor esperanza de vida. Subnatalidad del período bélico. Sobremortalidad producida en 2020 por COVID-19 que afectó principalmente a la franja de edad con 65 años o más.
- ✓ Entre los adultos: amplitud de las generaciones nacidas en los años del baby boom (1958-1977)

- ✓ Reducción de las generaciones siguientes por fuerte descenso de la fecundidad y natalidad
- ✓ Reciente recuperación, leve, de la natalidad que se deja notar en los 10-14 años
- ✓ Último detrimento, crisis y generaciones menos numerosas en edad fértil.

**A2.- Comentario de una imagen de paisaje. (4 puntos).**

El 10% de la puntuación total del apartado tendrá en cuenta lo siguiente:

- Adecuación a lo solicitado (tiene que ajustarse al enunciado de las preguntas/tareas)
- Además de la presentación, coherencia, cohesión, corrección gramatical, léxica y ortográfica

Además, se valorará el tratamiento de los siguientes aspectos atendiendo a la puntuación de cada epígrafe:

Consultar para este epígrafe el documento: <http://hdl.handle.net/10810/37547>

**Diapositivas: 57-58-59**

- ✓ 1. **(0,20)** ¿Cuáles son los elementos que configuran el paisaje? ¿Alguno es dominante? ¿El paisaje que se observa es natural o antrópico?

*Distingue los principales elementos que configuran el paisaje: antrópico abiótico en la superficie portuaria construida y en la ladera excavada, biótico en la vegetación de los bancales e hídrico en la lámina marina*

- ✓ 2. **(0,40)** ¿De qué tipo de relieve se trata? ¿Podrías localizarlo en las unidades de relieve de la CAPV? ¿Observas formas de modelado?

*Interpreta el relieve que se observa adecuadamente: topografía, litología, estructura y formas de modelado, lo localiza: La imagen corresponde a un paisaje litoral. Un relieve de costa formada por la ladera del monte que se encuentra al pie de la foto y el acantilado que se observa al fondo. Entre ambos se dibuja una abertura, una bahía no muy ancha que se denomina abra. Las formas de modelado originales de la ladera han desaparecido ya que la misma se ha utilizado como cantera para extraer roca que se ha utilizado en la ampliación y el relleno del puerto.*

- ✓ 3. **(0,40)** ¿Qué tipo de vegetación se observa? ¿Es natural o se trata de un uso antrópico? ¿Cuáles son sus características y factores?

*Distingue de forma óptima la vegetación y los usos vegetales del suelo. Indica los principales factores: condicionantes climáticos en función de la localización: La vegetación que se observa no corresponde a la vegetación potencial de acantilados y laderas del litoral atlántico. Se trata de vegetación ruderaria (en latín ruderis "escombro"), plantas que crecen y se desarrollan en espacios alterados por la acción antrópica.*

- ✓ 4. **(0,20)** ¿Se observan cuerpos de agua? ¿Cuáles?

*Distingue de forma óptima los cuerpos de agua: se observa una lámina del mar Cantábrico en una cuña que se interna hacia el interior. El mar invade el valle fluvial y por ello y hasta donde llegue el efecto de las mareas esta forma de agua se denomina ría o estuario*

- ✓ 5. (0,40) Atendiendo a los elementos que se observan ¿qué tipo/s de paisaje según función configura/n esa imagen?

*Expresa de forma adecuada las diferentes funciones que se aprecian en el paisaje:* Este paisaje corresponde a una infraestructura portuaria. En ella se pueden observar los diques y los muelles construidos y en construcción y una superficie donde se descarga, almacena, trata y distribuye gas natural. Las funciones de este paisaje son las de servicio comercial e industrial.

- ✓ 6. (2) ¿Consideras que en ese paisaje se produce o puede producir algún tipo de potencialidad o problemática naturaleza-sociedad?

\*En este apartado el alumnado ha podido desarrollar otras temáticas relacionadas con la imagen que también pueden ser pertinentes

*Observa e interpreta de forma adecuada la potencialidad o el problema territorial que trasciende de la imagen:* La imagen recoge parte del puerto exterior de Bilbao en su abra, pero se trata como se puede observar en la imagen de un espacio ganado al mar recientemente. El puerto de Bilbao tuvo su origen en la ría del mismo nombre, pero, a medida que aumentaban la actividad industrial, de construcción naval y comercial, se encauzó la ría y se construyeron muelles, diques y contradiques que fueron aumentando la capacidad del puerto. Éste se fue ampliando hacia otros municipios ubicados en el abra y para ello se rellenó y construyó sobre el mar. La ampliación ha permitido la diversificación de la actividad tanto comercial como industrial y en los márgenes de la ría se han recuperado terrenos de alto valor estratégico desde el punto de vista urbanístico. La consecución de esta obra ha cambiado las condiciones ambientales y el carácter (artificialización) de este sector del litoral en pos de una mayor actividad económica y comercial. En la imagen se observa una planta de gas. Euskadi tiene una tasa elevada de consumo energético vinculada sobre todo al sector industrial y en tanto tiene escasos recursos energéticos la industria ligada a este sector tiene carácter estratégico. Las centrales térmicas que utilizaban carbón (Pasaia) y fueloil (Santurtzi) muy contaminantes, ya han sido desmanteladas y las actuales, denominadas de ciclo combinado, utilizan gas.

## BLOQUE B (4 puntos)

**B1.-** ¿Qué características tienen los espacios agrícola-ganaderos y forestales de la España mediterránea? Relaciona tu respuesta con el texto (4 puntos)

El 10% de la puntuación total del apartado tendrá en cuenta lo siguiente:

- Adecuación a lo solicitado (tiene que ajustarse al enunciado de las preguntas/tareas)
- Además de la presentación, coherencia, cohesión, corrección gramatical, léxica y ortográfica

Además, se valorará el tratamiento de los siguientes aspectos:

- ✓ Comprende el litoral y prelitoral mediterráneo, el valle del Guadalquivir e islas Baleares
- ✓ Estructura agraria caracterizada por: población cada vez menor por el éxodo rural, el poblamiento disperso característico con tendencia a la concentración excepto en las huertas litorales; en las zonas de regadío predomina el minifundio, en secano las explotaciones son pequeñas y medianas en Valencia y Murcia, medianas en Cataluña y grandes en Andalucía occidental; usos de uso principalmente agrícolas
- ✓ Los cultivos de secano (cereales, vid, olivo y almendro) se extienden por las campiñas del Guadalquivir, las zonas prelitorales montañosas y el interior mallorquín
- ✓ Los cultivos de regadío dedicados a la horticultura temprana al aire libre, la horticultura precoz bajo plástico, fruticultura mediterránea (cítricos, frutales de hueso y pepita) y a los frutos tropicales (chirimoya, aguacate, mango)
- ✓ Ganadería bovina y porcina dominante en Cataluña, ovina en los secanos y reses bravas en el Guadalquivir
- ✓ Escasa significación de la explotación forestal a excepción del eucalipto en Huelva
- ✓ Nuevos problemas producidos por el cambio climático y la sobreexplotación de acuíferos.
- ✓ Relación adecuada con el texto.

**B2.-** ¿Cuál ha sido la evolución del sector turístico en España? ¿Qué peso tiene en la actualidad la actividad turística en España? Utiliza el texto para completar la respuesta. (4 puntos)

El 10% de la puntuación total del apartado tendrá en cuenta lo siguiente:

- Adecuación a lo solicitado (tiene que ajustarse al enunciado de las preguntas/tareas)
- Además de la presentación, coherencia, cohesión, corrección gramatical, léxica y ortográfica

Además, se valorará el tratamiento de los siguientes aspectos:

- ✓ Desarrollo turístico desde la década de 1960 y en la actualidad segunda potencia turística del mundo por número de visitantes e ingresos turísticos.
- ✓ Primer modelo tradicional: turismo de masas de “sol y playa”. Oferta turística abundante y barata, dirigida a demanda homogénea y masiva, de poder adquisitivo medio o medio bajo, concentrada temporalmente en verano y especialmente en las zonas de sol y playa de Baleares, Canarias y el litoral mediterráneo peninsular. Factores que consolidaron este modelo: desarrollo económico de Europa occidental y septentrional, progreso del transporte, proximidad geográfica, excelentes recurso naturales y culturales, bajo coste,

existencia de infraestructuras y servicios, política estatal de normalización y propaganda internacional. Característica también la dependencia de operadores internacionales en la comercialización de la actividad y la despreocupación por el impacto ambiental de la actividad.

- ✓ Período de crisis entre 1973 y 1985 por problemas de la oferta turística: encarecimiento de precios por inflación y aumento de salarios, pero sin incremento de la calidad en el servicio, infraestructuras y medio ambiente; falta de adaptación a la demanda que solicitaba una diversificación de las modalidades turísticas y que se caracterizaba por un creciente escalonamiento de las vacaciones a lo largo del año y envejecimiento de la población europea. Aparición de nuevos destinos turísticos.
- ✓ Nuevo modelo turístico en las últimas décadas caracterizado por una oferta de calidad, dirigida a una demanda más diferenciada y menos numerosa, con mayor poder adquisitivo y más repartida en el tiempo y espacio por nuevas modalidades de turismo. Factores de este modelo que todavía no ha culminado: calidad de la oferta, diversificación, promoción y sostenibilidad medioambiental, nuevos destinos turísticos en el marco del cambio climático.
- ✓ Crisis motivada por la COVID-19 y recuperación.
- ✓ Relación adecuada con el texto.

### BLOQUE C (2 puntos)

**C.-** Elabora un texto coherente (entre 6 y 8 líneas) en el que relacionas como mínimo 4 de los 6 conceptos que se presentan

El 10% de la puntuación total del apartado tendrá en cuenta lo siguiente:

- Adecuación a lo solicitado (tiene que ajustarse al enunciado de las preguntas/tareas)
- Además de la presentación, coherencia, cohesión, corrección gramatical, léxica y ortográfica

Además, se valorará el tratamiento de los siguientes aspectos:

- ✓ Comprende el significado de cada concepto y es capaz de explicarlo (**0,25**)
- ✓ Todos los conceptos se han utilizado adecuadamente en el producto propio creado desde el punto de vista geográfico (**0,75**)
- ✓ Relaciona adecuadamente en la escala correspondiente los conceptos geográficos utilizados (**0,90**)